

IZAN – NORBERA
KONGRESU PROFESIONALAREN AURKEZPENA

“NERABEZAROA AUKEREN AROA”

2016ko maiatzak 27 eta 28

PRENTSAURREKOA

Koldo Mitxelena

Areto Nagusia

2016ko apirilaren 8a

10:30

“Berebiziko garrantzia du nerabeen, familien eta hezitzaileen arteko talde-lanak”

Izan-Norberak Donostian maiatzaren 27 eta 28an antolatutako “NERABEZAROA, AUKERARAKO AROA” kongresu profesionala interes handikotzat jo daiteke, gaien edukiengatik ez ezik, baita hizlari jardungo dutenen garrantziarengatik ere, mundu mailakoak dira eta.

.....

Psikologian, Pedagogian, Medikuntzan, Familia-terapian, Irakaskuntzan, Orientazioan, eta abarretan diharduten profesionalen zuzenduta dago; hots, alderdi hezitzaile edo terapeutaengatik nerabeekin eta haien familiarekin lan egiten dutenei

Izan Fundazioaren Programen Zuzendaria, Izaskun Sasietak Fundazioa diru irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat dela azaldu du, “1984an sortu zena, drogamenpekotasunak tratatzeko jarduerak eta zerbitzuak sustatze aldera”.

Sasietak dioenez, “1985ean, Izan Fundazioak GIZAKIA HELBURU – PROYECTO HOMBRE Programa abiarazi zuen, drogaren menpekoen eta haien senideak osotasunean artatzearen” .

Norbera Programa ere hizpide ekarri du Programen Zuzendariak: “1997an, Izan Fundazioak bere ekimenen esparrua zabaldu eta NORBERA Programa fundatu zuen, arrisku- edota babesgabetasun-egoeran zeuden nerabeen eta haien senideen arazoak jorratu ahal izateko”.

Sasietak honako hau nabarmendu du: “gaur aurkezten dizuegun Izan - Norbera Kongresu Profesionalak, profesionaltasunaren eremuan ez ezik, gizatasunarenean ere aurrera egiten lagunduko du”.

Izan Fundazioaren Programen Zuzendaria, Izaskun Sasietak, azpimarratu du: “Norbera Programaren helburua arrisku- edota babesgabetasun-egoeran dauden nerabeak laguntzea dela”; baina haraxeago ere jo du: “aro hori familiaren baitan ematen denez gero, senideei ere helarazten zaie laguntza”.

Sasietak honakoa ere adierazi du: “planteatzen den esku-hartzeak nerabearen errealitatea osatzen duten elementu guztiei heltzen die, ikuspuntu familiarri, sozialari, akademikoari, laboralari...”. Horretaz gain, “gure esku-hartzearen asmoa ez da jokabideetan aldaketa azkar

eta drastiko hutsak lortzea”. Horrexegatik dio: “Berebiziko garrantzia du nerabeen, familien eta hezitzaileen arteko talde-lanak”.

Izan Fundazioaren Programen Zuzendariak nabarmendu duenez, “aspaldiko urteotan egindako lanak berretsi egin du halako diseinuaren balioa”. Bukatzeko: “Norbera etengabe berritzen ari da, aldaketa sozialak gertatu ahala, aldaketok nerabeengan eta haien familiengan zuzenean eragiten dute eta”.

Alberto Ruiz de Alegriak, Norbera Programaren Zuzendari Teknikoak, Izan-Norberak Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian maiatzaren 27 eta 28an antolatutako “NERABEZAROA, AUKERARAKO AROA” kongresu profesionala izan du solasgai.

“Kongresua Psikologian, Pedagogian, Medikuntzan, Familia-terapian, Irakaskuntzan, Orientazioan, eta abarretan diharduten profesionalei zuzenduta dago; hots, alderdi hezitzaile edo teraupetikotik nerabeekin eta haien familiekin lan egiten dutenei”. Alberto Ruiz de Alegriaren ustez, “gurasoen aldetiko tratu onei eta nerabezaroaren eboluzioari buruzko ezagutzak handitu nahi dituzten aita-amentzat ere” baliagarria da.

Programaren Zuzendari Teknikoak aurreratu du hizlarien artean mundu mailako ospea dutenak ere badaudela; hala nola, Boris Cyrulnik, Jorge Barudy, Maryorie Dantagnan... Ulertzen du, bada, “interes handikotzat jo daitekeela halako arloetan dihardutenenentzat, gaien edukiengatik ez ezik, baita hizlari jardungo dutenen garrantziarengatik ere, mundu mailakoak dira eta”.

Ruiz de Alegriak gehitu duenez, “Kongresua Javier Elzo doktoreak aurkeztuko du, eta Norberako lantaldearen hainbat profesionalek ere parte hartuko dute. Kongresuaren lehen eguna burutzeko, Javier Merino aktoreak familia eta nerabeei buruzko bakarrizketa bat eskainiko du”. Eta honela bukatu du: “izena emateko interesa dutenek Norberaren eta Izan Fundazioaren web guneen bitartez egin dezakete”.

www.progranonorbera.org

www.izan.org

Prentsaurrekoan, Kongresuko hizlarietako batzuk ere eman dira, bai eta Norbera Programaren 2015eko beste batzuk ere. Hona hemen.

HIZLARIEN CURRICULUMA

Boris Cyrulnik:

Neurologo, psikiatra eta psikoanalista, Cyrulnik giza etiologiaren sortzaileetako bat da. Var-eko Unibertsitateko irakasle dela, Frantzian, Touloneko Ospitaleko etiologia klinikoaren ikertalde baten arduradunetako bat da. "Los patitos feos", "El murmullo de los fantasmas", "El encantamiento del mundo", "De cuerpo y alma", "Sálvate, la vida te espera" liburuak idatzi ditu, besteak beste.

Sei urte baizik ez zuela, kontzentrazio-esparru batetik ihes egitea lortu zuen; gainerako senideak, ordea, judu jatorriko errusiar etorkinak, ez ziren sekula itzuli. Umezurtz gaztea alderrai ibili zen harrera-zentro eta familietan barna. Zortzi urte zituela, Frantziar Artapen Publikoak baserri batean kokarazi zuen, eta ia-ia ume baserritar analfabeto bilakatzekotan egon zen; alabaina, mediku izatera iritsi zen, bizi-gogoa bere buruari ulertarazi nahian betiere.

Jorge Barudy:

Neuropsikiatra, haur-psikiatra, psikoterapeuta eta familia-terapeuta. EFTA Familia-terapiako Europar Elkarteak aitortutako formatzailea. Graduondoko irakaslea izan zen Lovainako Unibertsitate Katolikoko psikoterapia eta esku-hartze sozial sistemikoan (1983-1998). Haurren tratu txarren prebentzio- eta tratamendu-programaren arduradun klinikoa (Unibertsitate bereko SOS Enfants-Famille Programa, 1984-1997). EXILen fundatzailea Bruselan (Belgika), Bartzelonan (Espainia) eta Txilen (indarkeria, tortura edota Giza Eskubideen urraketak pairatutako biktimen zentro mediko-psikosoziala), bai eta, 2000. urtean, IFIV indarkeriaren ondorioei buruzko formazio eta ikerketa-ekimenerako eta erresilientzia sustatzeko Institutuaren fundatzaileetako ere, Bartzelonan. Haurrak artatzeko lantaldearen kidea da, Kataluniako Haurren aldeko Itunaren baitan. CIPI Haurrak Babesteko Kontseilu Independenteko Ohorezko Kontseilaria da. Haurren tratu txarren prebentzio eta tratamendurako programaren aholkulari eta ikuskatzailea da Latinoamerikan, Belgikan, Frantzian eta Espainian; arlo horrexetan lan egiten duten talde profesionalen formatzaile eta ikuskatzailea da. Irakaslea da hainbat unibertsitate espainiar, europar eta amerikarretan graduondoko ikastaroetan, betiere indarkeriak haur, emakume, familia eta komunitate osoarengan dituen ondorioen prebentzio eta tratamendurako gaietan. Hizlari aritu izan da hainbat kongresu eta jardunalditan, Espainian, Europan, Hego eta Erdi Amerikan...

Haurren tratu txarrei eta babesari buruz artikulua ugari idatzi ditu, eta generoarengatiko eta seme-alaben aurkako indarkeriari buruzko eskuliburuak, bai eta honako idazlan hauek ere: "El dolor invisible de la infancia. Una lectura ecosistémica del maltrato infantil"; "Maltrato infantil: ecología social: prevención y reparación"; "Los buenos tratos a la infancia: Parentalidad, apego y resiliencia"; "Hijas e hijos de madres resilientes"; "Los desafíos invisibles de ser madre o padre: Manual de evaluación de las competencias y la resiliencia parental"; "La fiesta

mágica y realista de la resiliencia infantil: Manual de técnicas terapéuticas para apoyar y promover la resiliencia de niños, niñas y adolescentes”; “La inteligencia maternal”.

Maryorie Dantagnan:

Psikologo eta haur psikoterapeuta, haur terapeuten formazioari ekarpenak egin dizkiolako oso ezaguna da, abiarazi dituen psikoterapia-eredu berriak tratu txarrak jasandako neska-mutilen sufrimenduari, kalte traumatikoei eta atxikimendu-trastornoei egokitzen zaizkie eta. 2000. urtean, IFIV indarkeriaren ondorioei buruzko formazio eta ikerketa-ekimenerako eta erresilientzia sustatzeko institutuaren fundatzaileetako bat.

Gaur egun Bartzelonako EXILen haur psikoterapia programaren arduradun klinikoa da, eta bertan koordinatzen du, besteak beste, genero-indarkeriaren biktima diren amen seme-alabentzako programa terapeutikoa. Hainbat erakundetako haur terapeuten ikuskatzailea.

2008. urteaz geroztik, psikologiaren, psikiatriaren eta halako diziplinen profesionalentzat Espainian Bartzelonan, Bilbon eta Donostian, eta Txilen Viña del Mar-en egiten den Haurren Traumaterapia Sistemikoaren Graduondoko Diplomaren zuzendarietako bat da; "Red Apega" sortu du, alegia, goian aipatutako Diplomadun profesionalen sarea.

Hainbat idazlanen egilea da, banaka edo taldeka: “Las funciones ejecutivas: qué son y cómo fortalecerlas”, “El desafío de ser madre o padre: la evaluación y la rehabilitación de las incompetencias parentales”, “Los trastornos de la organización cerebral, el neurodesarrollo y el funcionamiento de la mente como consecuencia de los traumas tempranos, complejos y acumulativos, por los malos tratos infantiles” artikulua; PEC delakoarena; genero indarkeria pairatutako amen seme-alabei buruzko eskuliburuena, bai eta honako liburu hauena ere: “Los buenos tratos a la infancia: Parentalidad, apego y resiliencia”; “Los desafíos invisibles de ser madre o padre: Manual de evaluación de las competencias y la resiliencia parental “; “La fiesta mágica y realista de la resiliencia infantil: Manual de técnicas terapéuticas para apoyar y promover la resiliencia de niños, niñas y adolescentes”; “La inteligencia maternal”...

NORBERA lantaldea

Honako gai hauek jorratuko dituzte:

- Nerabeentzat eta haien familientzat berariaz prestatu eta zuzendutako programen beharra.
- Nerabezaroan gurasoen aldetiko tratu onaren ezaugarrien nolakoak.
- Nerabeak eta haien familiak artatzeko giltzarri metodologikoak.
- Baita ere, kongresua ixteko, mahai-inguru bat gazteekin eta familiekin.

NORBERAren 2015eko DATUAK

Kongresuarekin batera argitaratuko den eta 2015koari dagozkion Norberaren Urteroko Memoriatik jalgiak:

1. 2015ean gure Programan 229 nerabe artatu dira, bai eta 420 senide ere.
2. Hasi orduko:
 - Gazteen %78,57k eta gurasoen %63,68k deskribatu dutenez, "familia-arazo" bat pasatzen ari ziren.
 - Gurasoen %68,42k diotenez, seme-alabak arazo pertsonal bat pasatzen ari dira; nerabeek, aldiz, %41,56ean aipatzen dute.
 - Artatutako gurasoen %62,61k eskola-egoera seinalatzen dute; gazteen artean, berriz, %46,75k dute arazotzat.
 - Drogen kontsumoa familien %49,47k aipatzen dute, eta nerabeen %42,51k.
 - Arrisku-jokabideei buruz, gurasoen %17,42 da azaltzen dutenen datua, eta familien %12,99.
3. Era berean, ezinbestekotzat daukagu sarean eta gainerako profesionalekin koordinazioan lan egitea. 2015ean honako hauek egin dira:
 - 191 koordinazio ikastetxeekin
 - 56, adingabeen sistema judizialarekin
 - 29, osasun-sarearekin
 - 197, babes sarearekin: Zerbitzu Sozialak eta GFA
 - Sei profesional pribaturekin ere koordinazioa egin dugu.
4. Norberak eskaintzen duen arretaren intentsitate handia nabarmendu nahi dugu, nerabeak astean bitan eta gurasoak astean behin deitzen dituelako. Halaber, askotariko aktibitateak eskaintzen ditu, banakako eta taldekako saioak direla, familianitzeko taldeak direla, familia-topaketak direla, aisialdiko nahiz formazio jardunaldiak... Azpimarratzeko moduko datua da, gero, 2015ean 4.920 aktibitate zuzendu zaizkiela nerabeei, eta 2.310 haien familiei.
5. Azkenik, hona hemen alten zerrenda 2015ean:
 - 41, asebetetzeko moduko hobekuntza gisa aipatu ziren
 - 19, nolabaiteko hobekuntza
 - 9, hobekuntzarik gabe
 - Demandaren 13 birdefinizio eta 19 birbideraketa egin ziren.
 - Altan emandako beste 36 kasu hainbat zioengatik izan ziren; hala nola, kontsulta puntualak, beste zerbitzuetan jada artatutako egoerak, bizilekuaren aldaketa, 14-18 urte arteko adin-irizpidea ez betetzea...